

Umeak izan ziren protagonista atzo Kultur Asteko azken egunean ▶ 6



Igor Sasiainek errekorra hautsi du Halterofilian

VILLABONA ▶ Gipuzkoako Txapelketa jokatu zuten atzo Olaederra kiroldegian

LORPENA ▶ Arrankadan 91 altxa zituen billabonatarrek, bere anaiak zuten Euskadiko marka hobetuz ▶ 6

TOLOSA ▶

Tolosa Kup torneoaren jardunaldi berria, gaur

Lau partida, Uzturpe pilotalekuan ▶ 7

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶



URA ITURRALDE

IV. Argazki Lehiaketako irabazlea, Ura Iturralde

Bigarren saria, Aitziber Zabalori ▶ 4



Sanmielen azken txanpan ere, festa giroa nonahi

IRURA / ALDABA ▶ Gaur amaituko dira San Miguel jaiak Aldaban eta Iruran. Azken eguna izanagatik, ordea, festa giroak ez du etenik, eta ekitaldiz beteriko eguna antolatu dute biek ala biek. Atzokoan ere ez ziren atzean geratu eta bereziki umei

zuzendutako ekintzek bete zuten eguna Iruran —argazkian, goizean zehar, herriko frontoian izandako puzgarriak—. Aldaban, berriz, patata tortilla lehiaketarekin ekin zioten jai egunari eta trikitixa doinuek alaitu zuten gaua. **NEREA LIZARTZA** ▶ 7

ANOETA ▶

Basagain herrixkan indusketa lanetan

Aranzadi Elkartekoak aritu dira Burdin Aroko herrian ▶ 5



www.saldias-miguel.com

Saldias Miguel
ASEGURUAK

- Tolosa 943 65 11 89
- Beasain 943 08 56 00
- Orain Anoetan 943 69 80 04

Kotxe, motor eta furgonetak -% 60

Etxebizitza, komunitateak, komertzioak, enpresak,...

UZTURRETIK ▶ KRISTINA URRUTIA

Eskerrak 'locals' horiei



Ez gara denak norabide berean arraunean ari. Argi dago. Eta ez naiz arraunaz eta estropadez ari. Horrek berak azkenaldian nahikoa buruhauste eman dizkigun arren. Zinema hartu nahi dut hizpide. Euskal Zinemagintza, hain justu ere. Donostiako Nazioarteko Zinemaldia bukatu

berri den honetan erakutsi dutelako, pantaila handian, euskaraz egindako azkeneko pelikula. *Kutsidazu Bidea*, *Ixabel* izenekoa. Berta bertakoa.

Gainbegirada azkar bat ematea aski da lan talde osoa euskalduna dela konturatzeko. Gaia bera, oso gurea da, tradizioetan oinarritua. Baserri girora, euskaldun zaharren artera joandako euskaldun berriaren komeriak kontatu dizkigute Mireia Gabilondo eta Fernando Bernues zuzendariak. Ikusle gehienak gustora atera ziren zine aretotik, ez ordea denak. Izan da kritikatu

duenik ere. Kritikatzea ez da larritzen nauena esandakoa esan den bezala aireratu izana baizik. Kritika justifikatuak, arrazoituak edo konstuktiboak egin daitezke eta denak onargarriak dira. Kiratsa dario ordea irakurri dudana zutabetxoari. «letxe txarrean» idatzitakoa dela ematen du. Ez du hasiera goxoa, are eta okerragoak dira hurrengo lerroak.

«Kutsidazu bidea ez dela zinea» dio izenik ere jarri ez duen zutabe-egileak. Baina amaierarako utzi du bere lorerik preziatuena, ikuslea gutxietsiz

bukatzen baitu 34 lerroko artikulua labur eta eskasa. Pelikula txalotu zuten ikusle horiek, autoktonoak zirelako gozatu baitzuten Kuxidazu-rekin. Bertako ikusleek, jakina. kritikariaren iritziz Film hau autoktonoentzat bakarrik delako. Eskerrak Euskal Herrian oraindik Locals only dezente dagoen. Eta horietako askori esker kaleratzen da seguruaski ere periodiko horixe bera. Kritika argitaratu duen periodikoa.

Ixabelek, oraindik, jende askori erakutsi behar die bidea.

IRUDI ZAHARRA ▶



Ehizarako grina eskualdean, 1944ean ere

Erredakzioa ▶ Ehiza garaia ate joka dago. Aresoko Urteagako mendian birigarro eta usoetarako postuen enkantean murgilduta daude aresoarrak, esaterako, aste honetan. Baina ez dira bakarrik. Motorrak berotzen hasiak dira, beraz, eskualdeko ehiztariak bai eta eskopeta eta bestelako gailuak prestatzen ere. Askorentzat urte guztian zehar itxaron duten garaia da; beste askoren artean, alabaina, aurkako iritziak ere piztu ohi ditu ehizak. «Jolasa, kirola, artea, basakeria...» Askotarikoak dira honi buruzko iritziak baina argi dagoena zera da, eskualdean dagoen ehizarako grina aspaldikoa dela. Horrelaxe erakusten digute gure artxiboko dokumentu grafikoek eta bestelako datuek. Adibidez, argazkian, 1944. urtean, Joaquín Llanos, Carlos Dousinaga eta Ramon Llanos izeneko ehiztariak, ehizarak prest. ARGAZKIAK TOLOSA (JOSE MARIA TURURI ESNAL)

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldekohitza.nfo



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

EZBAIAN ▶

«Etxebizitza duin bat lortzea gazteek duten arazo larrienetakoa da egun». Inkestek hala diote eta kaleko jendeak baieztatu egiten du; gazteek irabazten duten soldatarekin ez da nahikoa gurasoen etxetik alde egiteko; hori dela eta HITZAK gai honi buruzko iritzi ezberdinak bildu nahi izan ditu

JON ALDAZABAL ETXEBERRIA (TOLOSAKO ZINEGOTZIA) ▶

Voith-Gorostidiko etxebizitzetzi buruzko hausnarketa

Tolosako Udalean garbi genuen lehentasunetako bat, azken hamar urteotan kanpora joan behar izan duen 2.500 gazteen bidea jarrai ez dezaten, etxebizitzarik ez duten tolosarrentzat etxeak prezio egokian egitea zen.

Egun etxebizitzek duten prezio izugarria ikusita, Babes Ofizialeko Etxebizitzek gain, etxebizitza tasatuen kontzeptua jorratzen hasi ginen, horrela ahalik eta etxebizitza portzentairik handienean Udalaren eragina antzeman dadin. Gauzak horrela, guztira egingo diren etxebizitzaren %63a babes-tua izango da (135 Babes Ofizialekoak, 290 tasatuak eta 250 libreak). Aipatu beharrekoa da Lur-Zoruaren Lege berriak jasotzen duen etxebizitza babestuen kopurua proiektu honetan gainditua geratzen dela, eta horrelako babesa ematen aitzindariak gabela azpimarratu beharra dago.

Babes Ofizialekoen gain Udalaren parte-

hartzea txikia denez, gure indarrak tasatuen gain zuzendu ditugu. Gauzak horrela gure lehen kezka: Zer bilatzen da? Nahiz eta lanean jardun, etxebizitza bat erosi edo alokatu ezinean dauden tolosarrei Tolosan bizitzaren jarraitzeak aukera ematea. Jakin badakigu proiektu honek ez dituela Tolosak dituen behar guztiak asetzen, baina argi dago lehen pauso interesgarri bat ematen ari dela, kanpora joateko zorian egon zitezkeen 400 bat familiari bertan bizitzeko aukera ematen zaielako. Jakin badakigu gazte askok ez duela oraindik baliabiderik jarri diren baldintzak betetzeko (ikasleak, lanean hasi berriak, etab.), baina hauen arazoa kontutan izan beharrekoa izanik ere, egun etxebizitza bat erosteko moduan egon daitekeen tolosarra lehentisi beharrean ikusi gara.

Aipagarria da ere etxebizitza tasatuen prezioa, 1.800 /metro karratuko. Udal

Etxean zozketan parte hartzeko izena eman duten ia 600 pertsonen artean, inkesta egin eta hauen artean ia denak etxebizitza jabetzan nahi izateaz gain, hau txikiagoa izaterik ez dute nahi izan (honek suposatuko lukeen aurrezpena kontutan izanik).

Etxe tasatuekin genuen bigarren kezka bat. Urte gutxiren buruan "pelotazorik" ez dugula nahi. Hori ekiditeko gestio ugari egin dira jabetzaren Erroldan tasatuen izena inoiz gal ez dadin. Zer suposatzen du horrek? Etxebizitza tasatuak saldu ahal izateko Udalarri jakinarazi beharko zaio, eta Udal Etxean egongo den zerrendan izena ematen duen bati saldu beharko dio erostetaren salneurriari KPIa bakarrik erantsi ahal izango zaiolarik. Beraz prezioa ez igotzea lortuko da eta sistema hau jarraitzeak, epe ertain-luzera Tolosako etxebizitzaren salneurrian eragina izatea espero dugu.

KOLDO SEARA (VILLABONAKO GAZTETXEAREN IZENEAN) ▶

Eskubidea pribilegio bilakatzen dutenean

Gaur egun etxebizitza eskuratu nahi duenak egoera latza jasan behar duela denok argi dugu. Etxe duin bat edukitzeko eskubidea jende asko eta askori kentzen zaion bitartean, beste batzuk, beraien poltsikoa betetzean besterik ez dute pentsatzen, eskubide hau pribilegio bilakatuz.

Gaur egun bizi dugun egoera dela-eta kexu gara bai, egunero etxeak hutsik gelditzen ari dira eta guk etxe horiek bete, aprobetxatu eta bizia eman nahi diegunean gure eskubidea ukatua izaten da. Gazte edo heldu askotan nahiko zaila egiten zaigu hilabete bukaerara iristea, etxe bat erostekotan bagara... zer esanik ez.

Etxebizitza arloko «gure» politikariei entzuten diegu etxebizitza ugari egiten ari direla eta baita egin ere, baino gure galderak dira, «norentzako?, zertarako? zein baldintzapean?» Espekulatzaileentzako, diru asko dutenentzako, gutxi batzuen poltsikoak betetzeko eta gizartearen gehiengoari bizitza hipotekatzeako? Mendi, baso, zelai eta beste hainbat toki eder desagertaraziz,

gure eskualdera begiratu besterik ez dugularik. Etxe piloa dago hutsik, zergaitik eraiki behar dute gehiago? Etxebizitza negozio bihurtu digutelako. Gure txoko goxoa izan beharrean, ezarri dizkiguten prezio altu eta soldata baxuekin ametsgaizto bihurtzen digutelako, norbere nortasuna garatzeko beharrezko den espazioa.

Administrazio publikoetatik konponbide faltsuak datorzkigu, laguntza ematen ari direla diote, baina pribilegio txiki batzuk pribilegiatu batzuentzako da lortzen duten bakarra, zozketen bidez banatzen dituzte etxeak, beraien ustez prezio duinean, norentzako da prezio duina hori? Nork jartzen ditu etxe horien zozketan sar gaitzen baldintzak? Etxe horien kontura berriro ere aberasten direnak.

Gure apustua alokairuzko etxebizitza publikoaren aldekoa da, ez baitugu uste etxebizitzak esku pribatuetara pasatzea egokia litzatekeenez, ikusi dugu ondorioa. Era-kunde publikoen ardura izan behar du etxebizitzaren gestioak, eskubide delako bai eta beraien ardura da osasuna eta hez-

kuntzaren moduan. Gauzak bide onetik ez doazenez alternatibak hartu behar ditugula argi ikusi dugu, alternatiba bat tresna bezala, indar berezia hartzen hasia den alternatiba bat eta boteredun jauntxoan aldetik bortizki jipoitzen ari direna. Okupazioa. Okupazioa arazo kolektibo kolektiboki aurre egiteko tresna baliagarria dela ikusten dugu, denon artean presioa egin dezakegu eta gizarteak hori ikusiko du, ulertuko du. Ez, ez dugu bizitza guztia okupa moduan bizi nahi, tresna moduan hartzen dugu, izan ere momentuz ez dugu beste alternatibarik ikusten, etxebizitza eskubidetzat onartzeko bidean, guk gure bizitza, geure erara, guk nahi dugunarekin, guri dagokigun momentuan bizitze-ko.

Bukatze, argi utzi nahi dugu gazteok gure eskubideak borrokatzen tinko jarraituko dugula eta ez dugula inoren diskurtso polita sinetsiko fruitu bakar bat bera ez baitugu jaso.

Etxebizitza eskubidea urratzen zaigulako, okupazioaz aurrera!

DATUA ▶

675

Voith-Gorostidi. Pasa den martxoaren 28an behin betiko oinarriak onartu ondoren, maiatzaren 2an ireki zuten Voith-Gorostidi eremuko toki babeseko etxebizitzetan izen-ematea. Orotara, 675 etxebizitza eraikiko dituzte eremu horretan, eta horietatik, 290 toki babesekoak edo tasatuak, 135 babes ofizialekoak eta 250 libreak izango dira. rezioei dagokionez, tasatuek, 105 metro karratukoek, 192.000 euro inguru balioko dute, hau da, 32.000.000 pezeta. 570 eskaera daude jasota. Horrek ez du esan nahi horiek guztiak zozketan sartuko direnik; izan ere, eskaerak aurkeztu ondoren, datuak egiaztatu behar ditu. Bihar amaituko da izena emateko epea.

iragarki laburrak ▶

LANA

Mantenimendua. Lorezainak, elektrikariak, aroztak... behar dira erakunde publikoetarako. 943 31 37 82.

Anbulatorioak. Honako arloetarako pertsonala behar dute: laborategiak, erizaindegia, administrariak, mantenimendua. 943 31 37 82.



ASTEASU: Guztiz eraberritua. Hormigoizkoa. Primerakoa. 35.000.000 pza.
TOLOSA: 3 logela. Eraberritzeko. Hormigoizkoa. 31.000.000 pza.
TOLOSA: Zumalakarregi. 100 m2. 3 logela, 2 bainugela. Erabat berritua. Bista ikaragarria.
VILLABONA: Arroa. Pisu altua igogailu eta berogailuekin. Berritua eta altzariz hornitua. Ganbara ere badu. 49.000.000 pza. Interesgarria.
VILLABONA: Larrea. Pisu altua igogailuekin. 37.000.000 pza.
VILLABONA: Eraiki berria. 3 logela, egongela handia, sukaldia eta bi bainugela. Altzariz erabat hornitua. 51.000.000 pza.
VILLABONA: 2 logela. Kalitateko materialak. Berogailua eta igogailua. 44.000.000 pza.
VILLABONA: 2 logela. Hormigoiez eraikia. Erdi eraberritua. Terraza. 36.000.000 pza.
VILLABONA: Eraikuntza berriko apartamentua. Bikaina.
ZIZURKIL: Ertzeko etxe itsatsia. Lursailarekin. Aparta.
ZIZURKIL: 3 logela, egongela, sukaldia, bainugela eta trasteleku. Terraza ederra. Igogailua. 41.500.000 pza.
ZIZURKIL: Aurrera plaza. Igogailua eta berogailua. Terraza. Berritua.

Errota 3 - Villabona

Olatzinmo@euskalnet.net
943 243 118 - 635 706 728

Kazetari lanetarako pertsona bat behar du komunikabide batek.

- Egunean 6 ordutarako.
- Leitza ingurukoa izatea hobetsiko da.

Interesatuak deitu lehen bait lehen
661 67 22 17
telefono zenbakira.

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶

IV. HITZA Argazki Lehiaketa, Ura Iturralde tolosarrarentzat

Euskal Herriko landetxe batean asteburu bat irabazi du; bigarren saria, afari bat Zizurkilgo Plaza Etxeberrin, Ibarako Aitziber Zabalok eskuratu du



Lehen saria. Neskatxa honen begiradak liluratu ditu HITZAKO irakurleak. URA ITURRALDE

ERREDAKZIOA

IV. HITZA Argazki Lehiaketak badu dagoeneko irabazlea. Ura Iturralde tolosarrak jaso ditu, hain zuzen ere, botorik gehien, %48,14koarekin. Hauxe kontatu zigun berak, lehiaketara argazkia bidali zuen egunean: «Nork esan Cocodrilo izeneko Kubako herri txiki zakar xamar batean honelako ume ederrik aurki genezakeenik. Bere begiradak guztiok liluratu gintuen. Eskerrak eman nahi dizkiot hemendik berarekin igaro genuen egunagatik, ahaztezina». Bada, begirada horrek Euskal Herriko landetxe batean asteburu bat igarotzeko txartela eman dio tolosar honi.

Ez da hau, ordea, laugarren edizio honetako irabazle bakarra. Izan ere, Aitziber Zabalo ibartarrak bigarren postua eskuratu du, %11,1eko botoekin. Berarentzat bi lagunentzako afaria izango da, Zizurkilgo Pla-

IRABAZLEAK ▶

Hauek dira zuek aukeraturako argazki irabazleak:

Lehen saria.

Ura Iturralde (Tolosa).

Bigarren saria.


Aitziber Zabalo (Ibarra).

Boto-emaielen artean. Juan Jesus Garikoetxea (Amaroz).

za Etxeberria jatetxean. «Iratin atera nuen argazki hau, armiarma bat da ur tantoak inguruan dituela».

Oso arrakastatsua izan da, beste behin, HITZAREN Argazki Lehiaketa. 50 lagun inguruk hartu duzue parte eta, nor baino nor, argazki ederragoekin. Era guztiakok izan dira, gainera: naturaren edertasuna islatzen zuten paisaiak, herri eta hirietako toki edo eraikin tipikoak, munduko txoko desberdinetako jendea... Irudien birtarte, Euskal Herria gehiago ezagutzeko aukera ere izan dugu, asko izan baitira bertan hartutako argazkiak. Beste kulturak, herriak eta parajeak ere jaso dituzte zuen kamerek.

Joan den igandean argitaratu zituen HITZAK zortzi argazki finalistak, eta aste honetan izan duzue gustukoena aukeratu eta botoa emateko aukera. Parte-hartzaileak asko izan badira, ez dira gutxiago izan bozkatzea erabaki dutenak.



Bigarren saria. Armiarma Iratin ateratako argazkiari. AITZIBER ZABALO

Irakurleen parte-hartzea ere saritu du HITZAK

Asko izan zarete, argazkia bidali gabe, zuen iritzia luzatu nahi izan duzuenok. Irakurle guztion parte-hartzea saritzeko, HITZAKO materialaren zozketa ere egin dugu botoa eman duzuen guztien artean. Baldintza bakarra harpidedun izatea zen. Eta hau izango da, hain zuzen ere, HITZAKO motxilaren ja-

bea: Juan Jesus Garikoetxea Oraindi (Amaroz).

Saria jasotzeko, Hitzak Araba etorbidean duen egoitzara bertaratzea baino ez du egin behar, harpidedun txartela eskuan. Gisa honetara, HITZAK bere irakurleak saritu nahi izan ditu, egunero-egunero gure egunkaria jarraitzeaga-



HITZAKO materiala eskuratzeko aukera eskaini dizuegu. HITZA

tik. Azken edizioak izandako arrakastari eutsiz, edizio honetan ere lagun asko animatu da gehien gustatzen zitzaion argazkiaren alde egitera lehiaketaren azken txanpa honetan.

Irailean zehar zuen oporraldian ateratako argazki ugari jaso ditugu. Beraz, gogoratu: ez ahaztu zuen kamera etxean eta egon beti prest gure argazki lehiaketako hurrengo edizioan parte hartzeko. ◀

ANOETA ▶ ARKEOLOGIA

IMANOL GARCIA

Basagain Anoetako muino batean dago. Bertatik Oria bailararen ikuspegi ederra dago, bai Tolosa aldera, bai Villabona aldera ere. Leku estrategiko horregatik aukeratu zuten ziurrenik Burdin Aroko biztanleek harreresiz inguratutako herririk eraikitzeko.

Hamabi urte daramatza Aranzadi Zientzia Elkarteak Basagain aztertzen, Xabier Peñalver buru dela. Azken hamabost egunetan aritu dira hogei lagun inguru indusketak egiten. Euskal herritarrez gain, Espainiko zenbait lekuetatik etorritako historia eta arkeologia ikasle eta lizentziatuak aritu dira. «Lehen inguruko jende gehiago etortzen zen, baina gero eta lagun gutxiagok ikasten du historia eta arkeologia», azaltzen du Peñalverrek. «Baina, orain, interneten abisu bat jartzen duzu arkeologiarekin zerikusia duten webguneetan eta segituan jasotzen dituzu eskaerak».

Orain 2.200-2.400 urte bizi zirenen bizimodua arakatzeko dihardute. Burdin Aroan zeuden orduan, aldaketa ugari gertatu ziren. Bi hektarea hartzen ditu Basagainek eta Oria bailararen ikus-eremu zabala izateaz gain, burdin ugari zegoelako hautatu zuten lekua.

Oria bailaran beste hiru herririk aurkitu dituzte: Intxur, Tolosako eta Albizurreko eremuak; Buruntza, Andoain; eta Murumendi, Beasain inguruan. Herririk horien artean loturak izango zirela uste du Peñalverrek. Gainera, herririk batetik beste bat ikusteko aukera bazegoela dio.

Nahiko aurkikuntza berriak

Hamabost urte badira Basagain aurkitu zutela. Harresia izan zen herririkaren berri eman zuen arrastoa. «Euskal Herri ezean, hau da, Isurialde Atlantikoan, Burdin Aroko arrastorik ez zen aurkitzen», dio Peñalverrek. «Batzuen iritziz, horrek Bontze Aroko artzainen garaitik garapenik ez zela gertatu adierazten zuen eta eremu hau menditsua izateagatik, ez zela zerealik landatu zioten. Baina ikuspuntu horrek ez zuen ez hanka ez bururik. Europa guztian aurkitu dira garapen aurreratuko herririkak».

Azken urteotako aurkikuntzek erakutsi dute hipotesi hori ez zela egia eta hemen, Burdin Aroan, izan zirela herririkak. «Egun gauza asko dakizkigu orduko bizimoduaz: etxebizitzak eraikitzen zituzten, lauki zuzeneko oinplanodunak eta neurri handi xamarrekoak; ne-



Indusketa lanetan jardun dute hainbat lagunek. Pazientzia handiko jarduerak egin behar izaten dute, lurra gutxinaka mugituz. I. GARCIA

Gure historia arakatzeko

Aranzadi Zientzia Elkarteak Anoetako Burdin Aroko Basagain herririk indusketak egiten aritu dira egunotan eta eskualdeko ikasleek bisita jaso dute



Ikasleek adituekin solasaldian aritzeko aukera izan dute egunotan. HITZA



Denbora luzez eserita edo makurtuta aritu behar dute ikerlariek. I.G.

zako eskolako eta Asteasuko Pello Errota eskolako ikasleak izan dira bertan. Gunean dauden sei informazio panelak erakutsi zizkieten Aranzadiko kideek eta zer aurkikuntza egin dituzten azaldu ere.

Galderek ere izan zuten bere tartea. Esaterako, hildakoekin zer egiten zuten jakin nahi izan zuten Anoetako Ikastolako Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoei. «Hildakoei ume txikiak zirenean etxe azpian lurperatzen zituzten eta bestela gorpuak erre egiten omen zituzten. Baina oraindik erraustik ez dituzte aurkitu», zioten ikasleek adituek esandakoa gogoratuz. Karmen Esnaola, Xabi Sainzar eta Ines Pagola irakasleak izan ziren ikasleekin bisita horretan. Hauen iritziz, «oso interesgarria da horrelako irteerak egitea. Gainera, norbait izanik gunean bertan, informazioa jasotzeko askoz hobeto».

Basagain bezalako gune arkeologiko bat hain gertu izatea abantaila bat dela deritzote irakasleek. Gure arbasoen bizimodua ezagutzeko ez dago urrutira joan beharrik, bertan dago zer ikusi eta ezagutu. Ikasleek gain, edozein herritarrek ere erraza du Basagainera joan eta bertan dauden informazio panelekin lagunduz, orain bi mila urte baino gehiago gure arbasoak nola bizi ziren ezagutzeko.

kazariak eta abeltzainak ziren; zerealak eta lekaleak landatzen zituzten; zeramika-lanak egiten zituzten eta beste herriekin harremanak zizutela ere badakigu».

Ikasleekin bisita

Aste honen baitan, indusketa bisita berezia jaso dute Basagainen. Eskualdeko hainbat ikastetxeetatik gune arkeologikora joan dira, adituekin solasteko eta bertan egiten ari diren lanaz zuzenean informazioa jasotzeko.

Anoetako ikastolako, Alegia-ko San Juan ikastetxeko, Alki-

BIDEGOIAN ▶ KULTURA



Kultur Asteko azken eguna atzokoa

M. Soroa ▶ Atzo amaitu zen Bidegoiango Kultur Astea. Txikienak izan ziren protagonista, eta haur-jolasez gozatzeko aukera izan zuten egun osoan zehar. 11:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara, frontoian ezarritako jolas parkean ibiltzeko aukera izan zuten. 15:00etan, Marrazki Lehiaketan hartu zuten parte eta 18:00etan, *Erreka Mari* txotxongilo saioa ikusi ahal izan zuten Enkarni Genuaren eskutik. Amaitzeko, txokolatada izan zen denentzat. MADDI SOROA

VILLABONA ▶ HALTEROFILIA

Igor Sasiainek errekorra hautsi du 91 kilo altxatuz

Ondo aritu ziren gazteak Gipuzkoako Txapelketan, hobekuntzak eginez



Igor Sasiainek 91 kilo errenkadan altxaz anaiaren errekorra hautsi zueneko irudia. MADDI SOROA

MADDI SOROA

Atzo jokatu zuten, Villabonako Olaederra Kiroldegian, 15 eta 17 urte azpiko Halterofiliako Gipuzkoako Txapelketa. Hasi-era batean kanpoko pilotalekuan jokatzeari aurreikusia bazegoen ere, eguraldi txarraren ondorioz, Haltereofiliako gim-

nasioan burutu zuten txapelketa azkenik.

15 eta 17 urte azpiko mutilak aritu ziren saioan, nor baino nor, pisurik gehien nork altxa. Bi modalitatetan banatu zuten altxandien saioa. Batetik arrankada eran aritu ziren, bestetik berriz bi zatitako altxaketan.

Aipatzeko da, Igor Sasiain gazteak bere anaia Jon Sasiainek zuen Euskadiko marka hobetu zuela arrankadan 91 kilo altxa ondoren, anaiak zuen marka baino kilo bat gehiago, hain zuzen.

Gogoratu, hilaren 22an Espainiako Txapelketa burutuko dutela A Coruña (Galizia).

SAILKAPENA ▶

Datuak, altxatuko kilo kopuraren arabera dira.

15 URTE AZPIKOAK

45 kilokoak.

1. Adrian Sasiain 55 kilo
2. Kellyn Quintana 50 kilo
3. Artz Zubeldia 35 kilo

50 kilokoak.

1. Iker Hernandez 127,5 kilo

62 kilokoak.

1. Igor Sasiain 196 kilo

85 kilokoak

1. Julen Intsausti 157 kilo

17 URTE AZPIKOAK

50 kilokoak.

1. Iker Hernandez 127,5 kilo
2. Adrian Sasiain 55 kilo
3. Kellyn Quintana 50 kilo

69 kilokoak.

1. Angel Martin 167,5 kilo
2. Jon Sasiain 160 kilo

77 kilokoak.

1. Mikel Quintana 167,5 kilo

85 kilokoak.

1. Jon Ander Iriarte 220 kilo

AZOKA ▶

Berrikuntzek hartu dute nagusitasuna azokan

Bertako ondo golpea iritsi da azkenean, ia 100 kilo jarri ziren salgai atzokoa

PABLO ALBERDI

Berrikuntza dezente ikusi genituen atzo Tolosako azokan. Perretxiko postuetan adibidez, izan genuen azkenean espero genuen ondo golpea, eta ia bertako 100 kilo ondo izan ziren salgai. Hauetaz gain, ziza horiak, mendiko angulak eta «trompeta de la muerte» saldu ziren 20 eurotan.

Fruta zerrenda ere handitu zen atzokoa. Aurtengo lehenengo irisagarrik saldu ziren kiloko euro banatan. Zaila izaten da mota horretako sagarrak ikustea mahaietan, are gehiago dendetan, naiz eta bertakoa izan. Baina ekoizle fin batzuei esker, azokan izan genituen salgai.

Berdura plazan ere ikusi genuen produktu berriren bat. Aurtengo lehenengo ziklamenak aurkeztu zituzten apaingarriko landareen postuetan, eta 5,5 eurotan tan saldu ziren.

ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
Berdura Plaza		
Ziklamena	5,5	-
Pentsamendua	1,00	-
Dhalia	3,20	-
Klabeina	3,20	-
Erromeroa	4,00	6,00
Salbia	1,00	1,20

Bertako produktuak

Onddoa	14,00	24,00
Ziza	20,00	-
Mendiko angula	-	20,00
«Trompeta de la muerte»	-	20,00
Intxaurrea	3,00	4,00
Tolosako babarruna	8,00	12,00
Erremolaba	1,50	2,00
Arrautzak	1,30	2,10
Artisau ogia	2,29	2,97
Ardi gazta	14,00	18,00
Behi gazta	7,00	7,50
Ardi-Behi gazta	11,00	-

Produktu ekologikoak

Kalabaza	1,60	3,04
Baraburia	1,60	6,00
Dliastak	2,40	-
Arroza	1,90	2,00
Lebua	1,00	-
Arrautzak	3,50	-
Ahuntz gazta	-	3,00
Mermelada	3,00	3,90

iragarki laburrak ▶

LANA

Dekorazio denda. Pertsona bat behar da dekorazio denda batean lan egiteko. Lan esperientzia eta ikasketak baloratuko dira. Bidali curriculum-a argazkiarekin alo222c@hotmail.com helbidera.

Zaintzailea. Pertsona bat behar da haurrak zaintzeko eta ebeko lanak egiteko Anoetan. 943 65 00 32 edota 659 98 16 87.

Garbitzailea. Bi neska eskaintzen dira orduka garbiketaren aritzeko: etxebizitzak, tabernak, atariak,

lokalak... Eskarmentu handia. 657 71 96 17 edo 943 68 30 57

Tabernaria. Neska euskalduna behar da 4 orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentuduna. Interesatuak deitu 635 74 52 91 zenbakira.

SALGAI

Etxebizitza. Leitza 100 m2ko etxebizitza salgai. Igogailua eta trastelekuarekin. 699 46 13 65.
Garajea. Tolosa. Salmentan garaje itxia. Interesatuak deitu honako telefono zenbakira 943 65 25 81.

SAN MIGUEL JAIK ▶

Azken txanpan ere festa!

Gaur amaituko dituzte Iruran eta Aldaban ospatzen ari diren San Miguel jaiak



Irura. Bi haur ahal duten moduan puzgarri batetik jaisten. N. LIZARTZA



Aldaba. Patata tortilla lehiaketan jaki goxoa prestatzen. NEREA LIZARTZA

NEREA LIZARTZA

San Miguel jaiak azken txanpara heldu dira, gaur emango baitie amaiera eskualdeko bi tokitan: Iruran eta Aldaban, hain zuzen ere. Edonola ere, atzorako prestatuta zizutzen egitaraueri ederki erantzun zieten bi herrietan, nahiz eta batzuk oraindik San Miguel Egunean egindako parrandaren ajea zuten.

Iruran, esaterako, haurrak izan ziren goiz osoan zehar protagonistak; izan ere, goizean goiz hasi eta eguerdia bitar-

tean gaztetxoentzako parkea jarri zuten herriko frontoian. Berez Loatzo plazan jarri behar bazuten ere, azkenean herriko frontoian kokatu zuten parkea. Orotara zazpi puzgarri zeuden forma eta kolore guztietakoak eta haurrek ederki gozatu zuten batetik bestera ibiliz pozarren. Saltoak, dantzak, korrikaldiak, triziklo handiekin zirukito batetik birak,... izan ziren goizeko protagonistak Irurako frontoian; hori guztia han elkartutakoak dantzan jartzeko musikaz girotua. Eguerdian Ezkonduen Dantza Soka egin zu-

ten San Migel plazan eta ezkonduak nahi adina mugimendu egin ondoren, bazkaria egin zuten herrian dagoen Aizpuruia jatetxean.

Arratsaldean berriro ere haurren txanda iritsi zen, hauranimazioarekin edota eurentzat jolasekin, besteak beste.

Aldaban ere izan zuten, baina, egitekorik. Eguneko festari iluntze aldera eman zioten hasiera patata tortilla lehiaketarakin. Herriko hainbat talde ibili ziren lehiari nork prestatu jakirik goxoa. Halere, tortilla egitea uste baino errazagoa

egin zitzaizen parte-hartzaileei osagaiak prestatuta baitzituzten lehiari hasi aurretik. Eurek egin beharrekoa antolatzaileek emandako osagaiak ahalik eta hobekien nahastea izan zen patata tortilla goxo bat egiteko.

Tortilla jan ondoren egarri zirenek pilotalekuan bazuten zer edanik; afaltzeko janaria etxetik eman behar bazuten ere, ardoa eta sagardoa Aldabakoek jarri baitzituzten. Gauari amaiera emateko, Irma eta Amets trikitilariak dantzan jarri zituzten han bildutakoak.

TOLOSA ▶ KIROLA

Tolosa Kup dela eta, gaur arratsaldean zehar lau futbol partida jokatuko dira Uzturpe pilotalekuan

Hogeita hemeretzi futbol taldek hartzen dute parte aurten Tolosako Kup Futbol Txapelketan

N. LIZARTZA

Aurtengoz ere eskualdeko gazteek eta Tolosako Udaleko Gazteria Sailak antolatzen duen Tolosa Kup Futbol Txapelketa abian da; ondorioz gaur lau partida jokatuko dituzte zortzi parte-hartzailek.

Gaurko jardunaldiei hasiera emango die 16:10ean, Strawberry eta The Patxis taldeek, elkarren aurka jokatuko baitute.

Ondoren, 16:45ean, Makalak eta Txotxeroak Y Cia futbol taldeek jarraituko dute eguneko partidekin. Jarraian, Oargi Tüpi Ttapa eta Txikiteroak taldeek elkarren aurka lehiatuko dute 17:20ean. Azkenik, Berriz Saia-tzeagatik taldea eta Asta Pistols izango dira gaurko partiduei amaiera emango dietenak. Gaur jokatuko diren partiden kontrola Strawberry eta Berriz Saia-tzeagatik talde-

en gain egongo da. Arduraduna, ostera, Errekalde taldea izango da.

Aurtengo txapelketan guztira hogeita hemeretzi taldek elkarren aurka lehiatuko dute 17:20ean. Azkenik, Berriz Saia-tzeagatik taldea eta Asta Pistols izango dira gaurko partiduei amaiera emango dietenak. Gaur jokatuko diren partiden kontrola Strawberry eta Berriz Saia-tzeagatik talde-

larunbatetan zein igandetan jokatuko dira Tolosako Santa Luzia auzoan dagoen Uzturpe pilotalekuan.

Data horretatik aurrera sailkatuen arteko final zortzirenak pilotalekuan. Data horretatik aurrera sailkatuen arteko final zortzirenak hasiko dira eta abenduaren 16ra bitarte luzatuko dira; egun horretan finalarekin batera parte-hartzaile guztiak bilduko dituen jaialdi berezi batekin emango zaio amaiera aurtengo Tolosa Kup torneori.

IRURA ▶

Informatika ikastaroak antolatu dituzte

M.A.E enpresak informatika ikastaroak emango ditu aurtengo Udalak utzitako lokal batean. Datorren astean zehar herriko etxetara joango dira ikastaroaren eduki, prezio eta ordutegiaren gainean informazioa emateko herritarrei. Interesa dutenek 943 37 69 79 telefono zenbakira ere dei dezakete.

ANOETA ▶

Udal Dantza Eskola abian, astelehenetik

Bihartik aurrera Udal Dantza Eskolako eskolak hasiko dira berriro ere. Hau da ordutegia: 3-4 urtetakoak asteazkenetan 17:15etik 18:15era; 6-7 urtetakoak ostiraletan 17:15etik 18:15era; azkenik, 8-9 urte bitarteko haurrak ostiraletan 18:15etik 19:45era.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ lurramendi egotza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Aldaba. San Miguel jaien baitan, 11:00etan, meza nagusia; 12:00etan, pilota partidak: infantilak, Urretabizkaia eta Bereziartu / Maiza eta Gaiurralde; junbenilak; Alonso, Iburguren eta Artola; 18:00etan, ume jolasak; 19:30ean, Agirre eta Larrañaga bertsoariak; jarraian, Kupela taldearekin erromeria.
Irura. San Miguel jaien baitan, 12:00etan, meza nagusia; ondoren, Irurako dantzari txikien emanaldia San Migel plazan; 14:30ean, jubilatuen bazkaria Zaharren Biltokian; bazkariaren ondoren jokuetako sarien banaketa eta dantzaldia.
Villabona. Garazi-Okabe mendi irteera antolatu du Aizkardi elkarteak.

ERAKUSKETAK

Alegia. Pabxi Tenak Kubako plastika eskolatik ekarritako artelanak, Jubilatuen tabernan, urriaren 4ra arte.

ZINEMA

Tolosa. Leidor aretoan, 17:00etan, *Julietta fokatxo* filma eta 19:30ean, *Kutsidazu bidea, Ixabel* filma.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Ibarra. Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.

Bihar
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15

IRRATIA

Txolarre irrati (107.5, 101.2 FM)
Gaur
10:30-13:00. *Hitzak hegan* magazina (errepikapena).
Bihar
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, agenda, HITZAREN erreparazioa, albisteak, elkarrizketak, lehiaketa, disko eskainiak...
19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
21:00-22:00. *Argizirin aitaldia*, Xoroxin irriaren saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.
▶ **HITZAK** ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Kutsidazu filma Ixabel

TOLOSA ▶ Eskualdeko aktoreek egindako eta eskualdean filmaturiko 'Kutsidazu bidea Ixabel' filma atzo aurkeztu zuten, Leidorren, lan talde osoa bertan zela



Kutsidazu bidea Ixabeleko lantaldea Leidor aretora sartzen, atzo, Tolosan filma estreinatzeko. MADDI SOROA



Toperaino bete zen Leidor aretoa, inork ez zuten galdu nahi izan estreinaldiko eguna. MADDI SOROA

MADDI SOROA

Kutsidazu filma Ixabel. Kutxidazu egindako lana. Kutxidazu euskaraz eta pantaila handian zure eta Juan Martinen arteko maitasun istorioa. Kutsidazu baietz, pantaila handian ere ahal duzula, gai zarela. Zergatik ez?»

Ez Hollywood, ezta Donostiako Zinemaldia ere; San Frantzisko kaleko Leidor Aretoa baizik. Ez glamourrik ezta alfonbra gorrikerik ere, txokolate bero usaina baizik. Ez kazetari gehiegirik ezta elkarrizketarik ere, herritarren agur xumea baizik. Zergatik ez?»

Mendian ezagutu zuten elkar Ixabel eta Juan Martinek, base-errian, naturan. Euskara da nagusi. etxean, kalean. Zergatik ez beraz *Kutxidazu Bidea Ixabel* filma euskaraz eta pantaila handian? Zergatik ez estreinaldia Tolosan?

Donostiako Zinemaldian izan zen *Kutxidazu Bidea Ixabel* filmaren estreinaldi ofiziala pasa den ostiralean. Atzokoan, ordea, Tolosako Leidor aretoan lehenengoz estreinatuta zen, aktore eta lan talde osoaren presentzia eta guzti. Ehundaka lagunetik gora egon zen ilaran zain, Leidor berritura sartzeko irrikitan, filma berria ikusteko gozoz.

Joxean Sagastizabalen eleberria lehenik eta antzerki obra gero, hiru formatu behar zuten *Kutxidazu bidea Ixabelek*. Hiru formatu eta hiru euskaraz. Hiru formatu eta hiru arrakasta. Bejondaiela!

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Amaia (Villabona). Biharko partez, udazkeneko eguzki borobilari pila-pila zorion.



URTE ASKOAN
Zorionak Amaier (Alegia). Gaur 4 urte. Ondo pasa etbekoen partetik.

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...
hitza agurren tarte

Brontxillo
Berritze lanak egin ondoren asteartetik aurrera zuekin gaude
Harategia eta Arrandegia
ALEGIA • San Juan kalea 49